

47 ZENBAKIA. 2021

ELKARRIZKETA | Nagore Ipiña. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa

**“Pertsona hezkuntza
ereduaren erdigune
bilakatzeko unea iritsi zaigu”**

euspot

EUSKARAZKO
SPOT
LEHIAKETA
2021

euspot.eus



SPOT LEHIAKETA

NEKAZARITZATIK BIZI NAHI DUGU!

**Sortu 30
segunduko
iragarkia,
gazteak familia
nekazaritzatik
bizitzera
animatzeko.**

SARI NAGUSIAK

Spot onena: 1.000€

Publikoaren saria: 500€

Gazteen saria (14-18 urte): 250€

Musika sinkronizazio onenaren saria: 300€

SARI GEHIGARRIAK

Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onena: 500€

Arizmendiko ikasleen spot onena: 250€



**Aurten
formatu
librean!**

EPEA
**2021eko
maiatzaren 12a**

OINARRIAK
euspot.eus

BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



Dekano berria

Nagore Ipiña da, 2020ko urritik, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanu berria. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua eta Hezkuntzan doktoratua, KoLaborategia-ko zuzendaria da. Kargu berriarekin etorri diren ardurataz eta Fakultaterako aurreikusitako proiektuetaz hitz egin dugu berarekin.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Harreman berriak ehuntzen

Mondragon Unibertsitateak inguruko enpresa profesionalekin duen aliantza estrategia indartu du, bere eragin sozioekonomikoa areagotzeko. Testuinguru horretan kokatzen da, esaterako, Goi Eskola Politeknikoarekin eta Ikerlan-ekin egindako lankidetzak hitzarmen berria. Hitzarmen horren arabera, teknologia sektoreak dituen erronkei aurre egiteko talde traktorea osatuko dute. Helburu nagusia da erakunde horien artean lankidetzak indartuko duten ekimenak aztertu eta identifikatzea; horretarako arlo desberdinetan arituko diren lantalde mistoak osatuko dituzte.



muniversitas aldizkariaren 47. zenbakia OSOA ikus dezakezu gure webgunean.



muniversitas aldizkariaren 47. zenbakia EUSKARAZ ikus dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder a la revista muniversitas número 47 en CASTELLANO en nuestra web.

BERRIKUNTZARI ATEAK IREKIZ

Mondragon Unibertsitateak 2021-2024 sasoirako Plan Estrategikoaren baitan unibertsitate global baten izaera garatu, unibertsitatearen eraldaketa digitala bultzatu eta ikerketa eta transferentzian espezializazioa garatzea ditu helburuen artean. Zentzu honetan, unibertsitateak bere lehen egoitza interdiziplinarra estreinatu du Bilbon, ikasleak, enpresak, ekintzaileak eta ikerlariak harremanetan jarri eta berrikuntza sare berriak eratzeke helburuarekin.

anitzetan berrikuntza sustatuko duen 4.0 ekosistema garatzea, arima propioa garatu nahi duen eraikin moderno batek eskaintzen dituen aukera guztiak baliatuz.

Espazio iraultzaile hau harreman berriak sortzeko fabrika bat dugu, berrikuntza harremanak sustatzeko bitartekoak eskaintzen dituen. Ikasleen, irakasleen, ikeritzaileen edo profesionalen arteko eguneroko bizikidetzak aukera interesgarria da lankidetzarako tendentzia berriak aztertzeke, gizarteak planteatutako erronkei erantzun ahal izateke.

Horretarako, besteak beste, hiri-laborategiak eskaintzen dira AS Fabriken, Unibertsitateko ikasle, negozio garapenaren fasean dauden ekimen eta enpresa profesionalei zuzendutako. Modu honetan, Bilbao AS Fabrikek dituen 4.0 teknologiak, datuak, adimen artifiziala edo ikus-entzunezko materiala hainbat eragileren artean balio proposamenak garatzeko aukera eskainiko du.

AS Fabrik etengabeko eboluzioa izaten ari den eraikina da, eraikin soil izatetik ekosistema aktibo izatera igaro behar duena, baterako hazkundeari. Hazkunde bateratu hau Unibertsitatea eta Zorrotzaurre, Bilbo zein Euskal Herriko eragileekin batera aurrera eramanez ahal izatea erronka erakargarria da. Mondragon Unibertsitatea erronka honi aurre egiteko prest dago, berrikuntzaren aldeko apustua indartu eta etorkizunera begira pausu sendoak emanez.

Helburua argia, arlo anitzetan berrikuntza sustatuko duen 4.0 ekosistema garatzea, arima propioa garatu nahi duen eraikin moderno batek eskaintzen dituen aukera guztiak baliatuz.

Bilbao As fabrik eraikina bera berrikuntza ariketa interesgarria da bere baitan. Zorrotzaurre uhartearen modernizazio prozesuan, eremuaren iragan industrialean torloju fabrika bat izandako eraikina goitik behera eraberritu da. Helburua argia, arlo



Goi Eskola Politeknikoak eta Ikerlan-ek bi erakundeen arteko lankidetzaren areagotzeko erreminta berriak sortu dituzte.

Lankidetzaren estrategiko berriak

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK ETA IKERLAN-EK TRAKZIO TALDE BAT SORTU DUTE BERAIEN ARTEKO LANKIDETZA ESTRATEGIKOA INDARTU ETA ETORKIZUNEN HAINBAT ERONKETAN ELKARREKIN LAN EGITEKO. TALENTUA ERAKARRI ETA GARATU EDO BIKAINTEKIN IKERKETAN SAKONTZEA IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE, ERANTZUN BEHARREKO ERONKAK.

Goi Eskola Politeknikoak | Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta Ikerlan zentro teknologikoak aurrerapauso bat eman dute beraien arteko lankidetzaren ibilbide luzean, trakzio-talde bat osatuz. Eratutako talde honi esker, bi erakundeek lantalde mistoak sortu ahal izango dituzte teknologia-sektorearen erronka garrantzitsueni aurre egiteko. Hauen artean, esanguratsuenak talentuaren erakartzea eta garatzea, arlo disruptiboetako garapen teknologikoa, digitalizazioa, adimen artifiziala edo hidrogenoaren aplikazioa izango dira.

Trakzio-talde berri hau Ikerlan-eko Zuzendaritzako eta Goi Eskola Politeknikoko Koordinazio Taldeko kideek osatzen dute, Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxarekin batera. Asmo nagusia bi entitateen arteko lankidetzaren indartzea ahalbidetzen duten ekimen eta ekintzak aztertzea eta identifikatzea da; eta horretarako, arlo zehatzetako lan talde mistoak sortu dira.

Ibilbide luzearen jarraipena

Goi Eskola Politeknikoak eta Ikerlanen arteko elkarlanak ibilbide luzea du honezkerok. Izan ere Goi Eskola Politeknikoak, Laboral Kutxak eta egungo MONDRAGON Korporazioko zenbait industria kooperatibak bultzatuta, sortu zen Ikerlan 1974an. Orduetik, lankidetzaren estua izan da eta aurrerantzean, akordio berri honi esker, gai estrategikoak trakzio mahai amankomunetik jorratuko dira.



Europar zehar joera



Unibertsitate eta zentro teknologikoen arteko binomio mota hau bien jardueraren indartzeko erabiltzen den ohiko formula bat da Europar. Modu honetan, formakuntzaren eta I + G aplikatuaren artean dauden osagarritasunak eta sinergiak aprobetxatzen direlarik. 2019an nazioarteko hainbat esperientziaren prospekzioa egin zuten bi agenteek Euskadin aplikatzeko interesgarriak izan zitezkeen praktikak identifikatzeko. Honen inguruan, Ikerlan-eko zuzendari nagusi den Marcelino Caballerok dioenez "Flandriako, Holandako, Norvegiako, Finlandiako eta Alemaniako hainbat esperientzia ikusi genituen eta interesgarriena SINTEF eta NTNUren arteko eredu norvegiarra iruditu zitzaigun. Hau ari gara erreferentzia gisa erabiltzen".

Hezkuntza eredu berria liburu batean

AINARA IMAZ ETA NAGORE IPIÑA IKERTZAILEEK EGIN DITUZTE EDITORE LANAK ETA LIBURU BATEAN BILDU DITUZTE HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEKIN FAKULTATEAK INDARREAN JARRITAKO HEZKUNTZA EREDU BERRITZAILEAREN GAKOAK ETA ERALDAKETA PROZESU HORREN NONDIK NORAKOAK.



Ezkerretik hasita, Nagore Ipiña eta Ainara Imaz editoreak, eta Helena Azkarragaurizar ilustratzailea.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Berrikuntza prozesu baten mapa berria: eraldaketaren eredu. Etorkizuneko irakasleen formazioan eragiten argitalpena lan kolektiboa izan da, eta Ainara Imaz eta Nagore Ipiña Fakultateko irakasle eta ikertzaileek egin dute editore lanak. Helena Azkarragaurizar ilustratzaileak jarri ditu irudiak. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak argitaratutako liburu honetan Fakultatean bertan abian jarritako hezkuntza eredu berria biltzen da.

Liburuaren helburu nagusia da Fakultateak bizi izandako hezkuntza eraldaketarako esperientzia kolektiboaren berri ematea.

Liburuaren helburu nagusia da Fakultateak bizi izandako hezkuntza eraldaketarako esperientzia kolektiboaren berri ematea; hala, lanak biltzen ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarritako hezkuntza eredu berriaren

gakoak, eta prozesu eraldatzaile horrek izan dituen oinarri nagusiak.

Profil pertsonal zein profesionalen sakontzen

Ainara Imaz eta Nagore Ipiñak editatutako lanak azaltzen du nolakoak izan behar duen etorkizuneko irakaslearen profilak, nolakoa hezkuntza eredu berriak eta egiteko modu berriak. Izan ere, editoreen ustetan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako hezitzaileen prestaketan, eta beraien profil pertsonal zein profesionalaren garapenean, beharrezkoak dira sakoneko aldaketak. Hori guztia egin dute Fakultatean bertan praktikan jarritako hezkuntza eredu berritzailea azalduz.

Xede garbia du liburuan jasotako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bultzatutako hezkuntza eredu berritzaile horrek: formazio integrala eta kalitatekoa eskaintzea, etorkizuneko belaunaldiaren prestakuntza hobetzea eta XXI. mendeko hezkuntzaren erronkei aurre egingo dieten pertsonak prestatzea.

Mario Kart Erandion da

ASTRABUDUAN ETA ALTZAGAN KOKATUTAKO BI KARPETAN BIDEO-JOKOAN OINARRITUTAKO LEHIAKETA ANTOLATU DU LEINN EKINTZAILE TALDE BATEK.



Kroma leinner taldeak Erandion aurkeztutako ekitaldia.

Enpresagintza Fakultatea | Iker Garcia de Vicuña, Nacho Almendariz, Mikel Cortes eta Yang Sheng Enpresagintza Fakultateko LEINN graduko ekintzaileek Mario Kart bideo-jokoan oinarritutako lehiaketa antolatu dute. Ekimenak Erandioko Udalaren babesa du, eta bi gune egokitu ditu Astrabuduan eta Altzagan, otsaileko eta martxoko lau ostiraletan zehar lehiaketa hartuko duten karpak muntatzeko. Aitziber Oliban Erandioko alkateak azpimarratu duenez proiektua bat dator Udalak familiaren entretenimenduari alde egiten duen apustuarekin.

eGamesen aldeko apustu sendoa

Erandion antolatutako ekitaldia Kromak jarri du martxan, ikasle talde honek eGameei buruz abian jarritako enpresa-ekimenak. Zentzu honetan, Mikel Cortesek azpimarratu duenez, "eginez ikasteko metodologiaren bidez ikasten dugu: Horrela, benetako enpresa bat sortu dugu, eta bertan proiektu errealek eta ikuspegi zabalekoak garatzen ditugu, gure gizartean inpaktu positiboa sortzeko helburuarekin".

Lehiaketa-formatu berezia

Erandion antolatutako partidek 32 talde izango dituzte, eta horietatik 2 finalista aterako dira, martxoaren 12an jokatu den partidara sailkatuko direnak. Lasterketa guztiak Erandioko Udaleko Twitch kanalaren bidez eskainiko dira zuzenean, eta lehen edizio honetako irabazleak Nintendo Switch eta diploma bana eramango ditu. Gainera, egunero jolas libreko ordu bat egongo da bertako familientzat.

Esperimentazio eta esplorazioaren garrantzia, haurren garapenean

'HIKHASI'-K ARGIALETXEAK KALERATU DU HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEKO IKERTZAILEEK IDATZITAKO ESPERIMENTAZIOAN SAKONDUZ BIZIBERRITU' LANA.



Larraitz Esnaola eta Alexander Barandiaran Eskoriatzako campusean egindako aurkezpenean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | *Esperimentazioan sakonduz biziberritu* liburua aurkeztu dute Larraitz Esnaola eta Alexander Barandiaran Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikertzaileek. 'HikHasi'-k kaleratutako liburuak

aztertzen ditu, besteak beste, zer-nolako onurak ekartzen dituen hezkuntzan eta garapen-prozesuan askotariko materialekin esperimentatzeko aukera izateak. Horrez gain, eta pausoz pauso dokumentatuta, egileek bildu dituzte lanean esperimenta-

ziorako hainbat ideia, estrategia eta proposamen.

Larraitz Esnaola eta Alexander Barandiaranen ustetan, hezkuntzan umea erdigunean jarrita, eskuliburuak alboratuta eta proposamen berriak lantzen hasita, galdera berriak sortzen dira:

Zeren arabera proposatzen dugu espazio jakin bat, eta espazio horretan, material bat edo bestea? Zer ekarpen egiten dio material bakoitzak umearen garapenari edo garapenaren esparrubati edo besteari?

Mondragon Unibertsitateko ikertzaileen iritziz, espazioek eta materialek esperimentatzeko, manipulatzeko, esploratzeko, sortzeko eta jolasteko ateak irekitzen dizkiote haurrari. Prozesu horretan bidelagun den hezitzaileari laguntzeko idatzi dute liburua, betiere, hausnartzen eta bide berriak irekitzen laguntzeko asmoarekin. Izan ere, oso liburu praktiko eta erabilezgarra da.

Liburuak 161 orri ditu, argazki askorekin jantzita. Hainbat ataletan dago banatuta, esaterako: Esperimentazioan sakontzeko, Curricu-

lumarekin lotura, Esperimentazioarako materialak, Materialen ezaugarriak eta aukerak, Nola sortu esperimentazioarako proposamenak... Gainera, liburua borobiltzen da esperimentazioan aritzeko 365 proposamen zehatzekin.

Liburuak, aztertzen ditu zer-nolako onurak ekartzen dituen hezkuntzan eta garapen-prozesuan askotariko materialekin esperimentatzeko aukera izateak.



Foroaren seigarren edizioaren irudia.

'Alimentarte' nazioarteko gastronomia foroaren seigarren edizioa

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Joan den otsailaren 16 eta 17an egin zen Alimentarte nazioarteko gastronomia foroaren seigarren edizioa, "Elkarrekin etorkizuna eraikitzen eta sektorea sendotzen" lelopean. Basque Culinary Centerreko Corazón Verde Fundazioak (Kolonbia) antolatutako ekitaldiak mundu osoan zehar ezagunak diren 20 chef baino gehiago batu zituen. Kolonbian antolatzen den ekitaldi akademiko-gastronomiko garrantzitsuenean sukaldariak teknologia, berrikuntza eta produktuetan duten ezagutza eta esperientzia publikoarekin partekatu zuten.

Sektoreari buruz hausnartzen

Edizio hau hitzordu birtual ezin hobea izan zen sektoreak COVID-19k sortutako pandemiari nola erantzuten dion eta horrek jatetxeen industrian duen eraginari buruzko ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.

Joxe Mari Aizega Basque Culinary Centerreko zuzendariak adierazi zuenez, "Une korapilatsu eta zalantza beteriko hauetan, inoiz baino beharrezkoagoa da komunitate gastronomikoa indartzea, baliozko edukia sortuz eta komunitatea osatzen duten aktoreen arteko harremanak indartuz".

Eibar futbol taldea eta WATS Team-ekin, kirol prestakuntza profesionala bultzatzen

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK, EIBAR FUTBOL TALDEAK ETA WATS TEAM- EK BI UNIBERTSITATE PROGRAMEN INGURUAN HITZARMENA SINATU DUTE: KIROL ENPRESAREN KUDEAKETA ETA BERRIKUNTZA MASTERRA, ETA KIROL BERRIKUNTZAREN GRADUONDOA.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateak eta aipatutako bi eragileek sortutako eskaintza oso berritzailea da, eta erantzuna emango dio kirol alorrean dagoen gabezia bati.

Kirol Enpresaren Kudeaketa eta Berrikuntza masterra 22 eta 27 urte arteko gazteei zuzenduta dago; eta Kirol Berrikuntzaren Graduondoa kirol alorrean aritzen diren 27 eta 50 urte arteko profesionaleri bideratuta.

Hitzarmena Ipuruan (Eibar) sinatu zuten, eta bertan parte hartu zuten: Enpresagintza fakultateko dekanok Lander Beloki, Eibar futbol taldea fundazioko lehendakariorde Mikel Larraña, Eibar futbol taldeko kontseilu-ordezkarik Jon Ander Ulazia eta WATS Team-eko sortzaile Alex Navarro.

Kirol prestakuntza hobetzen

Ekimenaren helburua da unibertsitate-programen bitartez kirol esparruan prestakuntza hobetzea. Horietan enpresa kudeaketan adituak diren eragile hauetako kideek parte hartuko dute eta honako alorrak jorratuko dituzte, besteak beste: enpresa kudeaketa, komunikazio estrategiak, nazioarteratze ereduak...

Horren baitan dago, baita ere, beka programa kirol talde horietako kirolarientzat zein horietan parte hartzen duten bestelako langileentzat; eta bi programatako kideei zuzendutako praktika eskaintza ere.



Hitzarmena Ipuruan sinatu zuten.

Harrera berria Iturripen

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK HARRERA GUNE BERRIA ESTREINATU DU ITURRIPEKO CAMPUSEAN, UNIBERTSITATEAREN HAZKUNDEAK EKARRITAKO EGOERA BERRIRA EGOKITUZ.

Goi Eskola Politeknikoa | 2021eko otsailetik aurrera Goi Eskola Politeknikoa harrera gune berria du Iturripeko Campusean. 5. eraikinean egokitutako espazio berriak emango die ongi etorria ikasle eta bisitariei hemendik aurrera, lehen idazkaritza ondoko leihatilan eskaintzen ziren zerbitzuak hemendik bideratuko dira (ikasle txartelen aktualizazioa, autobus txartela kargatzea...).

Hurbiltasuna areagotzeko

Azken urteetan unibertsitateak izandako hazkundera dela eta, beharrezkotzat jo da espazio berri bat egokitzea eta harrerako langileek ikasleenganako zuten hurbiltasuna areagotzea. Horretarako, nortasun propioa duen gune baten aldeko apustua egin da, diseinu propioa duena, argitsua, eta bertaratukoentzat erabilgarria, besteak beste bilera espazio txiki bat duela.



Harrera gune berria ikasle eta bisitarientzat.

Gazteen talentua orientatzen

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Ibermatica erakundearekin batera, *Talentua orientatzen* erreminta informatikoa sortu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko KoLaborategiak. Sortutako tresnaren helburua da DBHko 4. mailako ikasleei ikasketak aukeratzeko laguntzeko.

Hautaketan zailtasunak

Talentua orientatzen proiektua kezka batetik abiatu da: egungo ikasleek beren ibilbide akademikoan jarraitzeko hautaketan hainbat zailtasun izaten dituzte. Hala, ikasleek

%20,4ak gradua amaitu baino lehenago uzten dituzte bertan behera aukeratutako ikasketak. Kasu askotan, ikasleek berain interes eta kompetentzien autoezagutza falta dutelako eta orientazioan hutsuneak daudelako.

Tresna berriak erabiliz

Galdetegi bat du oinarrian "Talentua orientatzen" tresnak. Ondoren, Big Data eta adimen artifizialaren bidez, ikasleen erantzunak lan merkatuko kompetentziekin eta beharrek gurutzatu eta ikasleei beraien interesekin eta kompetentziekin bat datozen ikasteko aukerak aurkeztuko zaizkie. Gainera, behin galderak erantzunda, etorkizunerako hautaketa posibleak eskainiko zaizkie ikasleari. Hau da, ikaslearen adostasuna lan merkatuko beharrek eta kompetentziekin uztartutako hainbat informazio jasoko du ikasleak, esaterako: bere profilerako egokitzen den eskaintza akademikoa, ikastetxeetara dagoen distantzia eta lan merkatuko egoera.



Funtzionamendua azaltzen duen gida ateratu dute.

myGADEk bere International Week egin du

MYGADE-KO LEHENENGO MAILAKO IKASLEEK INTERNATIONAL WEEK OSPATU DUTE LAU HERRIALDE EZBERDINETAKO ESPERIENZIAK PARTEKATUZ.



myGADEko International Week-eko saio bat.

Enpresagintza Fakultatea | myGADEko lehenengo mailako ikasleek International Week delakoa ospatu dute, aurten atzerrira joateko zailtasunak direla eta herrialdeak klasera ekarriz. Honek lehen mailako ikasleei nazioartekotzearekin lehen harreman bat izaten lagundu die.

Horretarako, lau herrialdeetako esperientziekin kontatu da: Txina, India, Erresuma Batua eta Mexiko. Enpresen esperientziak eta herrialdearen azaldu dira, enpresa desberdinak eta Basque Trade and Investment-en eskutik.

Ulma, Ekin eta Erreka enpresak ikasleekin egon dira beraien esperientziak partekatzen. Bide batez sektore desberdinak ezagutu dira, enpresa bakoitzaren aktibitate desberdinak direla eta; forja, brotxadora, eta ate automatikoetan zentratuta daude enpresa hauen aktibitateak.

Praktikotasuna sustatuz

Ikasleek lan egiteko erabili duten dinamika oso praktikoa eta errealitatean oinarritua izan da. Egun bakoitzean herrialde bat eta herrialde horretan presente dagoen enpresa bat izan dute beraiekin. Horretarako, campus ezberdinetatik (Oñati, Irun eta Bilbo) streamig bidez konektatu dira edo herrialde bertatik izan dituzte bi hizlari: Basque Trade and Investment-eko herrialdeko delegatu komertziala eta enpresako ordezkaria. Horrez gain, ikasleen aldetik egunero egon da lanketa bat, bai hitzaldien aurretik eta ondoren ere.

Hitzaldien aurretik enpresaren eta herrialdearen inguruko prestaketa bat egin behar izan dute hitzaldiari ahalik eta zuku gehien atera ahal izateko. Ondoren, aldiz, enpresaren eta herrialdearen informazio esanguratsuenarekin infografia bat sortu dute beraien ikasketak islatuz.



10. urteurrenari begira, hausnarketa saio aberatsa egin du.

Basque Culinary Center-ek 2021erako plan bat du

BASQUE CULINARY CENTER-REK 10 URTE BETETZEN DUEN SASOI HONETAN, PATRONATUAK HAUSNARKETA SAIOA BURUTU DU. TESTUINGURU HONETAN, PATRONATUAK BERRIKUNTZAREN ARLOAN FAKULTATEAK EGINIKO LANA NABARMENDU ZUEN, ETA 2021ERAKO PLANA ONARTU.

Zientzia Gastronomikoen Fakultatea - Basque Culinary Center | Basque Culinary Centerreko Patronatuak abenduaren 16an egindako bileran 15 pertsona elkartu ziren: besteak beste, Joxe Mari Aizega (BCC), Pedro Subijana (Akelarre), Elena Arzak (Arzak jatetxea), Eneko Atxa (Azurmendi), Bittor Oroz (Eusko Jaurlaritza), Vicente Javier Atxa (Mondragon Unibertsitatea), Javier Larrañaga (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta Diego Guerrero (DSTAgE). Urteko topaketan aztertutako gaien artean 2020ko balantzea nabarmentzen da, zailtasunen gainetik digitalizazioa, berrikuntza eta talde-lanak izandako garrantzia nabarmenduz. Gainera, topaketan 2021eko berrikuntza batzuk ere aurkeztu dira, urte horretan Gastronomiaren Zientzien Fakultateak, Mondragon Unibertsitateari atxikiak, hamargarren urteurrena beteko baitu. Aldaketa ugaridun urtea izan zen 2020a, eta horien artean hezkuntza-ereduaren berdiseinua nabarmendu behar da: praktikoagoa, pertsonalizatua, diziplina artekoa eta etorkizuneko gastronomiaren arloko profesional baten gaitasun guztiak garatzera bideratua.

Etokizunera begira

2021ean zehar, Basque Culinary Centerrek beste aurrerapauso bat eman nahi du bere prestakuntza-planean,

eta honako hauek aurkeztu ditu: 2021ean abiartziko dituen bi master berri (Komunikazio Gastronomikoa Masterra eta Gastronomiako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra); espezializatorako bi ikastaro berri (*Farm To Table* sukaldaritza; sukaldaritza-teknikak hobetzeko espezializazioa: azken hori erabat online izango da; eta profesionalentzako 40 ikastaro berri baino gehiago biltzen dituen katalogoa. Prestakuntza berri horiek guztiak Gastronomiaren eta Sukaldaritza Arteak Graduari, Doktorego programari, Fakultatean ematen diren zortzi masterrei eta gaur egun ematen diren ikastaroei gehitu behar zaizkie.

Joxe Mari Aizega Basque Culinary Centerreko zuzendari nagusiak adierazi duenez, “2020ak bere onena emateko eskatu dio kolektiboari, eta

edozein erronkari aurre egiteko eta, gainera, gure komunitatearekiko loturak sendotzeko gai garela erakutsi dugu. Etorkizunean ere pentsatu dugu, eta nola jarrai osatzen etorkizuneko gastronomiaren profesionalen prestakuntza. Halaber, espero dugu gure 10. urteurrena ospatu ahal izatea eta gastronomiaren ahalmena bermatzen jarraitzea gure filosofiaren arabera, hau da, grinaz, berrikuntzaz, eraldaketa sozialaz eta bikaintasunez”.

2021ean abiartziko dituen bi master berri eta profesionalentzako 40 ikastaro berri baino gehiago

Goi Eskola Politeknikoak Ekoscan ziurtagiriak berritu ditu

ARRASATEKO INSTALAZIOETAKO BI ERAIKINEK IHOBEN ONESPENA JASO DUTE INGURUMENAREN ZEIN EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALDE, ETA KLIMA ALDAKETA ARINTZEKO EGINDAKO LANARENGATIK.

IHOBEk egindako auditoretzak ikastetxearen ingurumen-arloko lana aitortu zuen.



Garaian dauden bi eraikinek IHOBEN aitortpena jaso dute.

Goi Eskola Politeknikoak | Goi Eskola Politeknikoaren 10 eta 11 eraikinek (Arrasaten, Garaiako 10. enean kokatuta daudenek) Ekoscan ziurtagiria berritu dute beste behin. IHOBEN (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kudeaketarako Erakunde Publikoak) 2020ko abenduan egindako ikuskaritzan

nabarmendu zuen Goi Eskola Politekniko gune horiek ingurumenari begira egindako lan handia; ekonomia zirkularra bultzatzeko eta klima aldaketa arintzeko egindako ahalegin sutsuak, hain zuzen ere. IHOBEN garatutako Ekoscan ziurtagiriak erakunde desberdinek ingurumenaren alde

egiteko ezarritako lan metodologia sinplifikatuak txalotzen eta bistaratzen ditu.

Modu horretan, Ekoscanen helburua da erakunde eta gune desberdinek zabor eta isurketa kopuruak txikitzeko zein baliabideen erabilera eta optimizazioa gauzatzeko emaitza azkarrak lortzen dituzten ekimenak txalotzea eta bistaratzea. Epe laburreko emaitzetan oinarrituta, Ekoscan arauak urtero ingurumen hobekuntzaren emaitzak sistematizatzen ditu, eta ziurtagiri hori jasotako erakunde horietako guztiak gehienezko hiru urteko epean ingurumenaren legedia bere horretan betearaztea bermatzen du aipatutako arauak.

Onespen bikoitza

Goi Eskola Politeknikoaren 10 eta 11 eraikinek Ekoscan-en lehen ziurtagiria jaso zuten duela urte batzuk, eta ordutik urtero-urtero berritu dute. 2020ko abenduan egindako azken ikuskapenean IHOBEN arduradunek ondorioztatu zuten Goi Eskola Politeknikoaren 10. eraikinean eko-etiketa gabeko komuneko papera %100ean murriztu zela, eta, horrez gain, eraikinean ezarritako fluoreszenteen KWak %2,18an jaitsi zirela.

Bestalde, 11. eraikinean lortu du pertsonako energia elektrikoaren kontsumoa %28,83 gutxitzea; eta eko-etiketa gabeko komuneko paperaren erabilera %100ean jaitea.

Orokorrean IHOBEN gauzatutako ikuskaritzak azpimarratu nahi izan du Goi Eskola Politeknikoaren lana, batez ere Ingurumen Hobekuntza Taldeak egindako lan erraldoia eta Goi Eskola Politeknikoaren 2020-2021 eta 2023-2024 plan estrategikoetan ingurumenarekin lotutako konpromiso eraginkorra txertatu izana.

Balorazio horiekin bat, Goi Eskola Politeknikoan ingurumen helburuak betearazteko lanean diharduen lantalde aktiboa dago indarrean, eta urtez urte bere lana areagotuz doa.

HUHEZINEMA



Aurtengoa izango da Huhezinemaren 14. edizioa.

Komediaz jantzita dator Huhezinema jaialdia

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

| Aurten, martxoaren 16tik 18ra egingo dute Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako ikasleek Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia. COVIDak ekarri duen egora gogorriari modu umoretsuan aurre egiteko asmoarekin gainera, 14. edizio honek sail berri bat ekarriko du: Komedia Saria. Proiekzioez gain, ikasleek hitzordu desberdinak antolatzen dituzte, hala nola hitzaldiak, mahai-inguruak, master-class-ak eta sari banaketa ekitaldia bera.

BILBAO AS FABRIK

Hemen berrikuntza ekoizten da

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ONGIETORRIA EGIN ZION 2021 URTEARI BILBAO AS FABRIK-AREN INAUGURAZIOAREKIN. GUNE BERRI HAU GILTZARRIA DA UNIBERTSITATEAREN PLAN ESTRATEGIKOAN; STARTUPS-AK, ZERBITZU AURRERATUEN ENPRESAK ETA UNIBERTSITATE EKINTZAK BATERATUKO DITUEN 4.0 EKOSISTEMA.

Bilbao As Fabrik gunea abiarazteak bere garapenean ezinbestekoa den Mondragon Unibertsitatearen etapa berri bati hasiera ematen dio. Ikasleak, startups-ak eta beste enpresa mota batzuk elkarbizi diren berrikuntza ekosistema sortzeak orain arteko unibertsitate klasiko kontzeptua irauli egin du. Gune berriak eskaintzen dituen aukerataz hitz egiteko, hainbat lagun batu ditugu: Jon Altuna (Mondragon Unibertsitateko errektore ordea), Luis Berasategi (Bilbao AS Fabrik-eko Hiri laborategien koordinatzailea), Aitor Bediaga (Bilbao AS Fabrik-eko koordinatzaile nagusia) eta Nagore Bermeosolo (Business Data Analytics graduko ikaslea).

Diziplina anitzeko lehen egoitza

Bilbao As Fabrik da dagoeneko fakultate desberdinetako titulu akademikoak aldi berean eskaintzen dituen Mondragon Unibertsitateko lehen gunea. Momentu honetan

honako hauek eskaintzen dituzte: Ingeniaritza Mekatronikaren gradu duala, Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioaren gradu duala, Business Data Analytics-en gradua, Humanitate Digital Globalen gradua, eta Ikaste eta Berrikuntzaren unibertsitate masterra. Bilbao AS Fabrik-en oraingo helburua da prestakuntza eskaintza hori egonkortzea, eta titulazio bakoitzeko lau ikasturteak arrakastaz garatzea.

Zentzu horretan, Jon Altunaren esanetan, Zorrotzaurre gunea da “industriari zuendutako zerbitzu aurreratuetan espezializatutako unibertsitate laborategi bat, teknologia digitalen eragindako lanbide berriei humanismoaren bitartez erantzuna emango diena”. Horregatik, ikasle, irakasle, ikertzaile eta profesionalen arteko eguneroko elkarbizitza oso interesgarria da lankidetzak aukera berriak aztertzeke. Izan ere, Altunaren esanetan, “gizarteak jarritako erronkei eman beharreko erantzunak ezinbestez

izan behar du diziplina anitzetakoak”.

Bilbao As Fabrik zerbitzu aurreratuen laborategia da, eta bere helburu nagusia Bilbon negozioak garatzea; horren baitan daude prestakuntza ekintzak, ekintza estrategikoak, startup boosting-a (ideiaren sortzetik metodologiak garatu arteko bidean laguntasuna) eta aliantza estrategikoen eraikitzea (zerbitzu aurreratuen sektorea, gaur egun desagertuta dagoena, bateratzea).

Gizarteari irekitako gunea

Luis Berasategi gure ekosistemaren beheko solairua hartzen duten hiri laborategiak honela definitu ditu: “Balio handiko harreman eta elkarriketen fabrika”, non ikasle, ekintzaile, profesional eta gizarte nahasten den zerbitzu aurreratuak balio proposamenak asmatu eta aurrera eramateko.

Hiru laborategi nagusi daude: batetik, negozio aukera berriak ezagutzeko zerbitzu aurreratuen laborategira jotzen duten sektoreko profesionalena, aliantza eta lankidetzak bidez indartzen lagunduko die eta haien negozioarako ideak balioztatuko dira. Bigarrenez, negozio berriak garatzeko laborategia, non kokatu daitezkeen 15 berrikuntza proiektu eta coworking formatuan arituko diren 40 profesionaletik gora. Eta hirugarrenez, prototipoak gauzatu



Ikasleen, irakasleen, ikertzaileen edo profesionalen arteko eguneroko bizikidetzak aukera interesgarria da lankidetzak aukera berriak aztertzeke”.




DIZIPLINARTEKO GIZARTEA
Unibertsitateko laborategia Teknologia digitalen eraginpean dauden lanbide berriei erantzuten die humanismoak.



2 URTEKO LANA
As Fabrik-en inaugurazioa bi urteko lanaren ondoren iritsi da, Europako proiektu baten barruan.



HERRITARREI IREKITAKO GUNEA
Unibertsitateko ikasleen, negozio-garapenearen fasean dauden ekimenei eta enpresa profesionalen arteko harremanen fabrika.



ZERBITZU AURRERATUEN LABORATEGIA
4.0 industriarako eta ekonomia digitalerako zerbitzu aurreratuen erreferente bihurtzeko helburuarekin.



Bilboko AS FABRIK eraikinaren kanpoaldea, barruko espazioak eta mahai-ingurua: Jon Altuna, Luis Berasategi, Nagore Bermeosolo eta Aitor Bediagak osatua.



eta esperimentatzeko laborategia, 4.0 teknologiako hainbat gune garrantzitsu jasoko dituen: 3D inprimatzea, gauzen internet, datuak, errobotika eta adimen artifiziala, errealitate birtuala eta areagotua, eta ikus-entzunezko narratiba. Gune horretan, edozein titulazioko ikasleek, profesionalek, ekintzaileketaproiektuarilotutako hiritarrek erabiltzeko eskubidea izango dute bertan elkarrekin jolastu, ikasi, prototipoak egin eta proiektuak sortzeko. Eta gu bertan izango gara behar izanez gero laguntzeko.

Era berean, eraikineko gune irekietara tailerrak eta ekitaldiak

“Beste diziplina batzuetako ikasleekin harremanetan izatea eta zure adineko jendea hain gauza berritzaileetan lanean ikusteak aberasten zaitu eta motibatzen zaitu horrelako proiektuak martxan jartzen”.

eramango ditugu, gure komunitatea eraikin barruan zein kanpoan hazi dadin.

Espazio berrira egokitzea

Nagore Bermeosolok oso interesgarritzat dauka ikasleek gune berrian daramaten hilabetea, eta nabarmendu ditu eraikinaren modernitatea zein giroa. “Beste diziplina batzuetako ikasleekin harremanetan izatea eta zure adineko jendea hain gauza berritzaileetan lanean ikusteak aberasten zaitu eta motibatzen zaitu horrelako proiektuak martxan jartzen”. Bilbao As Fabrik-en kokapenari dagokionez, aitortu

du hasieran joan-etorriak arraroak egiten zitzaizkiola ez zuelako aurretik –ikasle gehienek bezalaxe– Zorrotzaurre ezagutzen. Horregatik, Zorrotzaurre irlara irisgarritasuna errazteko Bilboko Udalak asmoa dauka hiribusaren linea gehiago martxan jartzeko eta gaur egungo zirkularri osagarri izateko. Zentzu horretan Aitor Bediagak uste du eraikin horren abiaraztea “zoramen handia” izan dela, baina lanean jarraitzen dugu “gainontzeko espazioak ere lehenbailehen egokitzeko”. Bigarren fase honetan gauzatzen ari diren lanek begirada apirilean jarrita daukate; orduan inauguratuko dira hiri laborategiak,



Luis Berasategik
“Baliozko
harremanen eta
elkarrizketen fabrika”
bezala definitzen ditu
gure ekosistemaren
beheko solairuan
dauden hiri-
laborategiak.

eta startups eta profesionalei zuzendutako espazioek lehen erabiltzaileak izango dituzte. Bediagaren esanetan, Zorrotzaurre izugarriko gaitasuna duen espazioa da, denborarekin eraikiz joango dena; eta, era berean, Bilbao As Fabrik definitzerako orduan uste du etengabe garatzen doala, hazkunde prozesu bateratu baten bitartez, Horretarako, prozesu guztian ezinbestekoa izan da Bilboko Udalaren (Bilbao Ekintza) lankidetzak, hark lagundu baitu bide-orri bat diseinatzen, laster bistarazten hasiko dena.

Bilbao As Fabrik-en inaugurazioa heldu da europar proiektu baten baitan egindako bi urte luzetako lanaren ondoren; eta mantentze, hornitzaile eta bestelako profesionalei esker aurreikusitako epeetan gauzatu ahal izan da. Hala ere, aurretik dagoen bidea ere luzea da, eta oso iradokitzailea, Zorrotzaurre irlaren argazki osatua oraindik urrun dagoelako. Mondragon Unibertsitateak bide hau egin nahi du dagoeneko Zorrotzaurre kokatuta dauden eragileekin, aliantza estrategiko berriak



Irlarako irisgarritasuna
errazteko, Bilboko
Udala hiri-autobusen
linea berriak ezartzea
aztertzen ari da”.



Mondragon
Unibertsitateak
bide hau egin nahi
du dagoeneko
Zorrotzaurren kokatuta
dauden eragileekin,
aliantza estrategiko
berriak ehunduz.

ehuntzen eta begirada 2022ko apirilean jarria, ordurako oraindik bukatu gabe dauden bigarren eta hirugarren solairua prest egongo direlako.

BILBAO AS FABRIK-EN INAUGURAZIO EKITALDIA



Bilbao AS FABRIK-en inaugurazioa urtarrilaren 15ean izan zen, eta horren arduraz zuten Bilboko alkate Juan Mari Aburtok eta Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak. Espazio berria Zorrotzaurre irlako BETA2 pabiloian kokatuta dago, aspalditik erabili gabea

zegoen 70eko hamarkadako torloju fabrika zahar batean. Bilboko alkatearen esanetan, espazio hau abiaraztearekin bat “abentura ederra” martxan jarri da, eta horren helburua da 4.0 industriarako eta ekonomia digitalerako erreferentziazkoa bihurtzea.

EN

WHERE INNOVATION IS MADE

MONDRAGON UNIBERTSITATEA RUNG IN 2021 WITH BILBAO AS FABRIK. PART OF THE UNIVERSITY'S STRATEGIC PLAN, THE HIGHLY ANTICIPATED NEW SPACE WILL HOST STARTUPS, ADVANCED SERVICES COMPANIES AND UNIVERSITY ACTIVITIES.

Bilbao AS FABRIK is an innovative ecosystem created at Mondragon Unibertsitatea where students, startups and other companies coexist. Jon Altuna (Vice Dean of Mondragon Unibertsitatea), Luis Berasategi (Coordinator of Urban Laboratories), Aitor Bediaga (General Coordinator) and Nagore Bermeosolo (Business Data Analytics student) will talk about its future.

The First Interdisciplinary Space

Bilbao AS FABRIK is Mondragon Unibertsitatea's first multiple degree programme space, hosting the DUAL degree programmes in mechatronics and Business Administration and Management and the Business Data Analytics, Digital Global Humanities, Digital Primary Education programmes.

AS FABRIK is an advanced services laboratory that merges training, strategic activities, startup boosting and building strategic alliances to homogenise the local advanced services sector. Jon Altuna calls it “a university laboratory for advanced industry services giving a humanist response for new digital professions”. The interactions between students, professors, researchers and professionals is a fascinating opportunity to work together. “Societal challenges need interdisciplinary solutions”, notes Altuna.

A Space Open to the Public

For Luis Berasategi, the space is a “relationship factory” for developing value propositions with industry 4.0, data, artificial intelligence and multimedia. There are prototyping and specialised laboratories for members, development stage business initiatives and companies.

Member students are encouraged to form new interdisciplinary maker communities. Startup and new business initiative members have access to the technical facilities. Companies can be itinerant members with access to 2 atriums. There are nine 18 to 50 m² spaces and open spaces for early stage initiatives.

Getting Used to the New Space

For Nagore Bermeosolo, the first month in the modern and exciting building was fascinating and “being with students from other disciplines and seeing people her own age working on innovative things is really enriching and inspiring”. The trip to Zorrotzaurre was odd for her at first, because, like many students, she had never been there. A new bus route may be created as an alternative to car sharing.

Aitor Bediaga says, “It's madness. We're still working to get the spaces usable as soon as possible”. The goal is April, when the urban laboratories will open. Zorrotzaurre has enormous potential for future development, he says, and AS FABRIK is an active ecosystem, not just a building. Bilbao Ekintza was an important partner during the entire process of making the new space a reality.

AS FABRIK opened on schedule after two years thanks to maintenance crews, suppliers and others, but a long road is still ahead. The 2nd and 3rd floors will open in April 2022. The university will form new strategic alliances with locals.

SLMaren aurkako txertoa

Gari Fullaondo CEO Kimet Sport SL - LaLiga, RFEF y AFE metodologia-aholkularia.



“**Z**e proiektu ederra, ze ausartak zareten, ze inbida ematen didazuen... Horrelako ugari jaso genituen duela ia 10 urte KIMET martxan jarri genuenean, ez ditut gogoan zenbat.

Eta hasiera horrek gogoan ditudan bakoitzean, ia 10 urteko bidaia honetan zehar jasotako esperientziak errepasatuz, zenbait gauza beste modu baten egiten saiatuko nintzela pentsatzen dut. Guzti hori kirol metodologian espezializaturiko enpresa bat, kirol munduan hedaturik dagoen arazo nagusienetako bat konpontzeko asmoz sortu zena, arazo hau enpresa ekintzailea sortzen hasi zelako. SLM metodoaz ari naiz, Gazteleraz ‘Sobre La Marcha’ metodoa bezala ezagutuko duguna, gauzak planifikaziorik gabe egitea.

Ilusio tonak eta ezagutza tekniko arku eta geziekin tanke eta bonbei aure eginez, lan gogorra, enpresa testuinguruaren ezagutza eza, pertsona baliabide eza edo baliabide ekonomikoen urritasunaren esku zeudenak. Agian pentsatuko duzue konparaketa honek ez duela zentzurik, baina ekintzaileko, zenbait pentsatu izan duzue noizbait irabaztea ezinezkoa zen guda baten sartuak geundela?

Duela lau urte iritsi ginen Bilbao Berrikuntza Faktoriara, eta lana medio, Euskad inguda hori irabazten hasi ginen, beranduxeago Estatuan eta pixkanaka munduko herrialde ezberdinetan.

Ez genekien oso ondo zer izango zen, eta buruzagi, arduradun eta bidelagun desberdinak izan dituen arren, artikulu honen bidez konbentzimendu osoz helarazten dizuet proiektu horren parte izatea oso aberasgarria izan dela niretzat. Enpresen arteko partaidetza partekatuko proiektu baten parte izatea, ‘ahizpa nagusi’ baten zaintzapean, memorizazioan eta jarraipenean, Kime-ten egin dugun gauzarik onenetako bat izan da, eta, zalantzarik gabe, beste proiektu batekin hasi izan ez bagina, aurretik esan dizuedan moduan, gauzak beste modu batez egitekotan hau horietako bat izango zen.

Ez genekien oso ondo zer izango zen, eta lider ezberdinak izan dituen arren, arduradun eta bidelagunok, artikulu honen bitartez konbentzimendu osoz transmititzen dizuedan helburu bati fidel izan da, enpresen arteko partehartze kolaboratibo baten ordezkari izatea Kimet-en egin dugun gauza onenetariko bat izan dela. Horretarako ‘ahizpa nagusi’ horren jarraipen eta monitorizazioa beharrezkoa izan da, proiektua berrizabiatuko bagenu besterik modu baten egingo nuen gauza horietako bat delarik, inbertitzaile edo aholkulari handi batengatik inbertitua izatearekin alderatuz, alternatiba interesgarri bat.

Umiltasunez uste dut ‘txerto’ horiek,

BBF’n ekintzaitzaren SLMren aurka

injektatzen ari garenak bezala,

buruko mina arinduko liekeela duela

hamar urte gu bezalako esperientzia

gabeei.

Ez pentsa sarreran azti bat dagoenik, gehiago jakin dezagun buruan jotzen gaituen makila magiko batekin, ezta pentsatu ere, baina bai sortzen dugula lana errazten digun ekosistema bat, eta berarengan sinistuz gero, enpresa txiki guztiek ditugun beharrianak asetzen dituen kolaborazio ekosistema bat sortuko da.

Testuinguru honetan kolaborazio proiektuan parte hartzen dugun enpresen tipologia argi izatea garrantzitsua da (*coworking, factory, team, ...*), eta zein den bakoitzaren balio erantsia. ‘Ahizpa nagusi’ hori gai izan behar da baliabide eta gaitasun ezberdinak hazkunde kolektibo bateko ekosistema baterantz bideratzea, modu paraleloan enpresa txiki bakoitzaren hazkundera ekarriko duena.

Lehen fase baten, eta startup gazteengan fokua jarritz, ‘ahizpa nagusi’ horren *mentoring* eta laguntza lana ezinbestekoa iruditzen zait, proiektuaren parte diren enpresen arteko elkarlaguntza medio, ‘anaia txiki’ honi bizitza emateko.

Baina, nire ustez, gakoa bigarren fasean dago, azelerazio- eta abiatze-fase horretan, proiektu horiek balio handiena eman bait dezakete, eta guk BBFren proiektuan sinisten jarraitzea eragiten baitigu, enpresen eta ikasleen eta ekintzaileen arteko batasunak bere balio nabarmena hartuz.

Dagoeneko finkatuta dagoen enpresa batek ikasle bati edo *Leiner*rei ematen dien balioa, ezagutzaz gain, benetako proiektua, erantzukizuna, enpresa-sormenerako askatasun gidatua eta hori guztia behar bezala planifikatzeko gaitasuna dute enpresok irakaskuntzako arduradunak edo *coach*-ak tartean izanik.

Baina, era berean, enpresa finkatuok talentua detektatzeko dugun gaitasunak, ikasle gazte horiek gure proiektuetara erakartzeko, balio erantsi erreala eskaintzen du. Balio hori *coach*-ekin planifikatutako lanaren bidez eskuratzen da, praktika soilak bazterturik, proiektu partekatu eta planifikatuak aurrera eramanez, non enpresen ezaugarriak eta beharrak integratzen diren emakumezko edo gizonezko ikasleen zein *Leiner*-en gaitasun eta kezkekin.

Ez dakit askorik txerto eta birusez, eta ez naiz aditua ekintzaitzaren edo *business*-ean, baina umiltasunez uste dut ‘txerto’ horiek, BBF’n ekintzaitzaren SLMren aurka injektatzen ari garenak bezala, buruko mina arinduko liekeela duela hamar urte gu bezalako esperientzia gabeei.

Besarkada handi bat une txarrak bizitzen ari diren enpresari, autonomo zein langile danontzako, ta gogoratu bakarrik arinago helduko garela, baina elkarrekin urrunago!!!



“Pertsona hezkuntza ereduaren erdigune bilakatzeko unea iritsi zaigu”

Nagore Ipiña

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa

NAGORE IPIÑA LARRAÑAGA (ARRASATE, 1983) HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO DEKANOI ZEN DATU ZUTEN PASA DEN 2020KO URRIAN. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN LIZENTZIADUNA DA ETA HEZKUNTZAN DOKTOREA, IKERKETA IZAN DA IPIÑAREN JARDUN NAGUSIA BERE IBILBIDE PROFESIONALEAN, ETA AZKEN URTEOTAN KOLABORATEGIAREN ZUZENDARIA IZAN DA.

Dekano moduan dituen erronka, proiektu eta asmoei errepassoa egin diegu berarekin izandako solasaldian.

Urrian, oraingo ikasturtea hasi berri-tan, izendatu zintuzten. Zer moduz daramazu? Ondo, poliki-poliki neurria hartzen. Zuzendaritza Batzordean izandako esperientziak eta bertan ikasitakoak lagundu dit zenbait kontu hobeto ulertzen, baina beste hainbat ardura berriak dira niretzat. Orokorean ondo hasi dut bidea, baina



egunero pauso berriak egitea tokatzen zait. Ikasteko gogotsu nago.

“

Dekano karguaren egunerokoak ekarriko duenez ikasteko gogotsu nago”.

Zeintzuk izan dira zure lehenengo egitekoak dekanok hartu zenuenetik? Lehenengo eta behin, jendea entzun. Hasteko, bazkideekin banan-banakako elkarrizketak egin ditut. Eskertzekoa izan da kolektiboaren erantzuna eta eskuzabaltasuna. Horrez gain, Mondragon Unibertsitateko eta Fakultateko batzorde eta organo ezberdinetan kokatzen joan behar izan naiz. Gainera, barne zein kanpoko hainbat erakundetan ordezkari lanak egiten ere hasia naiz.

A ze urtea tokatu zaizun izendatua izateko! Egia da bai! 2020. urtea ez dugu erraz ahaztuko! Covid-19ari dagokionez, martxotik puri-purian zegoen kontua zenez, urrian kargua hartu nuenean, nahiko jantzita geunden eta bagenituen erronkari erantzuteko hainbat proposamen. Besteak beste, Fakultateko eredu hibridoaren oinarriak diseinatuta genituen eta

barne formazio plan zabala garatuta genuen. Gainera, indar handia jarri dugu Covid-19aren aurrean, unibertsitatea gune segurua izatea bermatzeko.

Covid-19ak baldintzatutakoaz gain, ikasturte bizia aurreikusita zegoen fakultatean... Bai, bestela ere, oso urte garrantzitsua zen 2020 guretzat... Batetik, berrikuntza ugari jarri genituen abian Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduetan. Bestetik, Bilbon eskaintzen den Humanitate Digital Globalak gradu berri eta berriak sortu genuen. Unibertsitate masterrei dagokionez, titulazio berri bat kaleratu genuen: Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean Unibertsitate Masterra.

Horrez gain, eta neurri batean Covid-aren eraginez, eredu hibridora, hau da, aurrez aurreko testuinguruen eta onlineko testuinguruen konbergentziara, saltoa eman genuen. Ereduen sistematizazio eta garapen lan horretan, oso garrantzitsua izan da KoLaborategiaren laguntza. KoLaborategia da Fakultateko Gizarte Digitalerako Hezkuntzaren eta Komunikazioaren laborategia.

Hori guztia borobiltzeko, esku artean genuen beste erronka handi bat ere burutu genuen: Eskoriatzako Dorleta eraikin berria, inaugurazioarekin borobildu genuena.

Fakultateko hezkuntza eredu berria eta inplementazio prozesu horren berri jasotzen duen argitalpena idatzi eta aurkeztu duzue Fakultatean. Zeintzuk dira berrikuntza proiektuaren nondik norakoak? Fakultatean eta Mondragon Unibertsitatean oro har, beti izan gara berritzaileak, eta beti izan dugu kezka berezia hezkuntza proiektu sendoa garatzeko. Mendeberrri 2025 hezkuntza-eredua indarrean jartzea aurrerapauso garrantzitsua izan zen. Eredu horretan, pertsona jarri dugu erdigunean, ezaugarri pertsonalak eta profesionalak kontuan hartuta. Eta ezaugarri horietatik abiatuta, ikasleen garapen integrala sustatzeko testuinguruak sortu ditugu.

Eta, jakina, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea izanik, berebiziko garrantzia eman diogu hezkuntza proiektu hori sendotzeari. Horregatik ahalegindu gara egindako ibilbidea 'Berrikuntza prozesu baten mapa berria: eraldaketaren eredu' liburuan jasotzen. Ainaro Imaz ikeritzailea eta biok egin ditugu editore eta biltzaile lanak, baina argi dago Fakultateko kolektibo osoaren lanaren emaitza izan dela argitalpen hori.

“

Etorkizunera begira, profesionalen prestakuntzan eta ikerketa kolaboratiboan aurrera pausoak ematen jarraitu behar dugu”.

Honetaz guztiaz gain, Fakultateari begira, zein beste erronka dituzue?

Arlo ezberdinetan ditugu erronkak, jakina. Etorkizunera begira, profesionalentzako prestakuntzan aurrerapausoak ematen jarraitu behar dugu, eta, nola ez, eredu propioan indartzen jarraitu. Digitalizazioan sakontzea ere ezinbestekoa dugu, gradu, master, etengabeko prestakuntza eta transferentzia eskaintza zabalagoa eta hobea egin ahal izateko. Ikerketa arloari dagokionez, eta ikerketa kola-



boratiboa aplikatzen dugun heinean, eredu hori garatu behar dugu kontuan hartuta prozesuan parte hartzen duten pertsonak eta erakundeak.

Eta, jakina, nazioartekotza. Haste-ko, Debagoienetik Bilborako saltoa egin dugu, eta jarraituko dugu bide horretan. Gure eskaintza nazioartera begira ere jarri behar dugu. Horrekin lotuta, Fakultatearen kohesioa eta nortasuna mantentzea erronka handia izango da. Azkenik, esku artean dugun beste erronka bat da komunikazioa: egiten duguna ondo komunikatu eta gizarteratu behar dugu. Erronka guztiak lotuta daude, finean nahi duguna da, azken 45 urteotan egin dugun moduan, gizararte eragiten jarraitzea!

Zu arlo ezberdinetako ikerketa arloan aritu izan zara. Zeintzuk dira Fakultatearen ikerketan nagusiak gaur egun? Faltan botako duzu ikerketa esparrua? Batez ere, hiru arlotan jarduten gara: kooperatibismoan, hezkuntzan eta komunikazioan. Horietan, 11 ikertalde ditugu, bakoitzak bere esparru propioan.

Nik neuk ez dut erabat baztertu ikerketa, zenbait proiektutan oraindik ere lanean nabilelako. Hori bai, ezin diot eskaini nahiko nukeen denbora guztia. Hala ere, uste dut gaurkotuta egoteko garrantzitsua dela ikertzea, eta horretan jarraitzeko asmoa dut. Gainera, asko gustatzen zait ikerketa mundua.

Unibertsitatea, enpresen berrikuntzaren bidelagun

INNOVATION MANAGEMENT ORGANIZATION IKERKETA LERROAK "ELKARREKIN BERRITZEN" GIDA ARGITARATU DU, MONDRAGON KORPORAZIOAK 2020-2023 SASOIRAKO GARATUTAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA KORPORATIBOAREN PLANAREN BAITAN.



Aimar Basañez eta Laida San Sebastián, ikerketa lerroko partaideak.

Goi Eskola Politeknikoa | MONDRAGON Korporazioak landutako Zientzia eta Teknologia Korporatiboaren Plan berriaren helburu nagusia 2020-2023 urteetarako taldeko kooperatibetan berrikuntza sustatzea da. Testuinguru honetatik abiatuta, M4F programa (Mondragon For Future) martxan jarri da; LKS-Next, MIK kudeaketa ikerketa-zentroa eta Goi Eskola Politeknikoarekin elkarlanean, taldeko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza abiarazi eta indartzeko. Modu honetan, eredu orokor bat lantzen da ondoren enpresa bakoitzeko errealitatera aplikatuko dena, aplikazioa urte naturaletan aurrera eramanez. Egiturari dagokionez, proiektua jardueraka antolatzen da, kasuan kasu indarra formazioan jarritz, prozesuen

aktibazioan eta berrikuntza kulturaren garapenean. Gainera, proiektua amaitzeko, proposatutako plan guzti honen gestio sistematizatu ere lantzen da enpresak bere aldetik berrikuntzan jarraitzeko ahalmena izan dezan. Ekimena 2020an martxan jarri zenetik partner bakoitza taldeko bi kooperatibarekin lanean aritu da, eta horrela egingo dute 2021ean ere, krisialdien gainetik proiektu hau korporazioarentzat estrategikoa baita.

Egokitzapen propio baten lanean

Goi Eskola Politeknikoko Berrikuntzako ikerlariak Ondoan eta MIBA kooperatibekin lanean aritu ziren 2020 urtean zehar. Berrikuntzarekiko errealitate ezberdina duten eta sektore oso anitzetakoak diren bi enpre-

sa hauetan egindako lana bakoitzaren berrikuntza beharrak identifikatuz hasi zen.

Esperientzia honetatik abiatuz, Innovation Management Organization ikerketa taldeak 'Elkarrekin Berritzen' gida argitaratu du, enpresei berrikuntza sistematizaten laguntzea helburu duena. Gida honek erakunde batek berrikuntza jasangarri garatu ahal izateko beharrezkoak diren zenbait giltzari sakontzen ditu. Zentzu honetan, epe luzerako berrikuntza sistematizatzeko, enpresa bakoitzak eredu propioa garatzea ezinbestekotzat jotzen da, eta aurrerantzean ere unibertsitateko ikerlari talde honek inguruko enpresen bidelagun izaten jarraituko du berrikuntzaren alde pauso berriak ematen joan daitezen.

Abian da gizarte-arretarako inbertsio inklusiboaren ikastaroa

ONCE FUNDAZIOAK, LABORAL KUTXAK, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK ETA MADRILGO CARLOS III UNIBERTSITATEAK GIZARTE-INBERTSIOARI BURUZKO IKASTARO BAT ABIARAZI DUTE, GIZARTE-ERAGINA IZANGO DUEN INBERTSIOEI BURUZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO.



Inbertsio inklusiboko ikastaroko parte-hartzaileak eta hizlariak.

Enpresagintza Fakultatea | 'Espainiako Kalitatearen Inbertsio Soziala (PISCE) sustatuz' da ikastaro pilotu honen izena, eta bere helburu nagusia inpaktu sozialeko inbertsioaren inguruko prestakuntza ematea eta eragile publiko, pribatu eta gizarte-erakundearen artean esperientziak trukatzeko da.

Ikastaroa Europako Batzordearen "Gizarte-arreta eta laguntzarako Inbertsio inklusiboarako Aliantza" Europako Erasmus+ proiektuaren barruan kokatzen da, eta Laboral Kutxak, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak, Madrilgo Carlos III Unibertsitateak, Gregorio Peces Barba Giza Eskubideen Institutuaren bidez eta ONCE Fundazioak sustatzen dute.

Online formatua

Programa online egingo da, eta e-learning eta lankidetzaren eta hausnarketa-espazio birtualak konbinatuko ditu, lehen aipatutako hiru sektoreetako profesionalentzat. Modulu tematikoak, prestakuntza praktikoa eta sektoreko profesionalak azaldutako kasu errealek txandakatuko dira, bai eta erronka errealetan lan egiteko saioak ere.

Prestakuntzak iraungo duen bi hilabete baino gehiagotan, ikasleek kontzeptuzko oinarriak, inbertsioaren, erakundearen eta gizarte-ekintzaileen bizipenak ezagutu ahal izango dituzte, bai eta banakako eta taldeko hausnarketa-espazioak partekatu ere.

Programa online egingo da, eta e-learning eta lankidetzaren eta hausnarketa-espazio birtualak konbinatuko ditu.

Kataluniako ikastetxeei hezkuntzaren berrikuntza prestakuntza ematen

Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea | Kataluniako Escoles FEDAC ikastetxe sareko 26 ordezkariak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hezkuntza berrikuntzari buruz eskainiko duen hezkuntza programan parte hartuko dute. Programa hori Fakultatearen eta TeamLabs ikaste laborategiaren artean diseinatu izan da.

Urtebeteko iraupena duen programa erdipresentzial formatuan garatuko da. Modu horretan, ikasturtean zehar Bartzelonan hainbat workshop egingo dira. Gainontzeko edukiak online eskainiko dira.

Kurtsoaren helburua da ikastetxe eta erakundeetan ikastea gidatu, profil profesionalak prestatzea, eta FEDACeko ordezkariak hezkuntza berrikuntzan prestakuntza eskaintzea.

Hezkuntza berrikuntza sustatu nahi duten ikastetxeei bereziki zuzendutako programa zazpi modulutan banatuta dago; horren baitan daude hezitzaile zein bideratzaile eginkizunak eta baita ere ekipoen erraztaile zein proiektuen diseinua.



Bartzelonan egindako lehen workshop presentziala.

'Googaz 3.0', tokiko merkataritzara zuzendutako irtenbideak

LEINNER-EK HAINBAT UDALERRITAN BULTZATUTAKO LEHIAKETA BATEK ESTABLEZIMENDUEN EGOERA AZTERTU ETA HOBEKUNTZAK PROPOSATZEN DITU.



Leinnerrak, ekimenaren bultzatzaileak, Googaz 3.0 ekimenaren aurkezpen ekitaldian.

Enpresagintza Fakultatea | Googaz 3.0 "millennial inkonformista batzuk" sortutako mugimendua da, eta euskal gazteria "bere bizitzaren jabe bilakatzera" bultzatzea du helburu nagusi. LEINN graduko bederatzi ekintzailek osatutako talde bat dago buru, eta inplikaturako udalen, aldundien eta La Caixa eta Bilborock bezalako erakunde pribatuen babesa dute. Bere lehen edizioa 2018an ospatu zen eta iaz bertan behera geratu zen Koronabirusaren pandemia dela eta. Zentzu honetan, antolatzaileek azpimarratu dutenez "gure belaunaldia modu fresko eta originalean iraultzea helburu duen ekimen berria da". Orain arte, gainera, ekimena Bizkaian bakarrik egiten zen, beraz hazkunde fasean kokatzen da. Ekimenaren bultzatzaileen arabera, "uste dugu pertsona guztiek dutela talentua,

bakoitzak berea. Pertsona normalak gara, baina gauza izugarriak egiteko jaiotzen, eta horregatik gara gure etorkizunaren sortzaileak.

Asmo handiko helburuak

Googaz 3.0 programak helburu hauek ditu:

- Gazteek berain rola identifikatzea eta garatzea erronka sozialen aurrean, zehazki, tokiko merkataritzaren egoeraren aurrean, Euskadi egoera hobe batera hurbiltzeko lehen urrats gisa.
- Gaztekinguruko erronketara hurbiltzea, hala nola tokiko merkataritzaren egungo egoerara.
- Talentu gaztea bultzatzea, gaitasunak garatuz.

Alaitz Kortabarria, Premios CEL Universidad sariketan finalista

Goi Eskola Politeknikoa | *Analysis of the performance of Demand Driven Material Requirements Planning on supply chain management: A multiple case study.* Honako hau da Alaitz Kortabariaren doktorego-tesiarene izenburua, Premios CEL Universidad sariketan finalista izan den lana. Lehiaketa honek saritzen ditu enpresa testuinguruan horniketaren kudeaketa hobetzeko egindako ekarpen garrantzitsuenak, ikertzaileen doktorego-tesietatik eratorritakoak. Eta aspaldian Premios CEL Universidad bihurtu da logistika alorrean Estatu mailan pisu handiena daukan sariketa.

Akademiari ordainsaria

Kortabariak ikertzaile ibilbidea Goi Eskola Politeknikoan garatu du, eta trebatuta dago logistikan, industria kudeaketan, operazio zuzendaritzan eta MRP Demand Driven-en. Bere ezagutza arlo horietara zuzenduz, Kortabariak enpresa kolaboratzaileekin batera ikerketa lanak eta transferentzia proiektuak egin ditu horien lehiakortasuna areagotuz. Horrela bada, Alaitz Kortabariak jasotako sariak goraiatu nahi du tesiak batu duen Goi Eskola Politeknikoaren talde-jarduna, eta honek erantzuna ematen dio industria kudeaketa aurreratuaren erronkari.



Alaitz Kortabarria ikertzailea.

Itsas garraioa berrasmatu da: Seabat proiektua



Seabat proiektuari hasiera eman dion bilerako taldearen argazkia.

Goi Eskola Politeknikoa | Tamaina handiko itsas garraioan baterien erabilera izugarri areagotuz doa, nahiz eta, adibidez, automozioaren elektrifikazioarekin alderatuta oraindik ere teknologia berrizat har dezakegun. Merkatuaren tendentzia itsasontzi hibridoetara begira dago eta epe luzeagoan full electric izango direnei, baina oraindik ere baterien sistema oso garestia da.

Testuinguru horretan, Goi Eskola Politeknikoko Energia Elektroaren ikerketa taldeak Seabat proiektuan parte hartzen du, eta berau bideratuta dago itsas propulsiarako hobekuntza berritzaileak garatzera kostuak gutxituz. Modu horretan, itsas garraioaren etorkizunerako estrategikotzat hartzen den sektore honetan eragin nahi da; eta horrela estandarizatutako arautegi bat sortzen laguntzea.

Etorkizunari begira

Seabat proiektuak otsailaren 5ean Kick Off Meeting-a egin zuen, eta aurreikuspena da 2024ko urrian bukatzea; hortaz, lau urteko iraupena aurreikusten da. Ontzi-konpainiak eta enpresa eraikitzaileak, tartean Fincantieri italiarra eta Norvegiako Fincantieri -biak Seabat proiektuko partaideak- izango dira ikerketa honen onuradun nagusienak.

Nazioarteko elkarkidetzagisa aurreikusitako proiektu hau Belgikako Flanders Make enpresak koordinatuta dago; eta Goi Eskola Politeknikoa parte hartzen du bertan gainontzeko 13 partner-ekin, besteak beste Ikerlan zein Fundacion Soermar.

Proiektua zortzi lan-multzotan banatuta dago, eta Goi Eskola Politeknikoa horietako bostean parte hartuko du, bateria eta potentziako bihurtzaile elektronikoen sistemak diseinatu eta garatzen, biak ala biak trakzio elektriko zein motor elektrikoaren lehenetako osagarriak. Lantalde honek parte hartuko du, baita ere, proiektuaren balioztatzean.

Goi Eskola Politeknikoa bateria eta potentziako bihurtzaile elektronikoen sistemak diseinatu eta garatze lanetan parte hartuko du.

Fageda: bihotza duen proiektu sozioenpresariala



Fagedak ekoizten ditu, besteak beste, Katalunian gehien saltzen diren jogurtak.

Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea

| LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko Aitzol Loyolak eta Arianne Kareagak Fageda proiektu enpresarialaren nondik norakoak jaso dituzte kaleratu berri duten LANKI Koadernoak bildumaren 13. zenbakian. Liburuan bildu dituzte Kataluniako Garrotxa eskualdean kokatuta dagoen Fageda enpresa kooperatibo bereziaren ezaugarri nagusiak.

Ikertzaileen ustetan, Fageda "esperientziabereziada", desgaitasun psikikoak eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonak osatzen baitute. Proiektuaren xedea pertsona horien bizi-baldintzak eraldatzea da eta, horretarako, kooperatiba bat sortu dute, ikuspegi paternalistak alde batera utzita.

Ibilbidea luze baten emaitza

2019 urtean, ia 40 urteko ibilbidearekin, 437 pertsonak osatzen dute proiektua (281ek dute desgaitasun-ziurtagiria). Fagedak lana eta zerbitzu terapeutikoa eskaintzen die Garrotxa bailaran ezintasun psikikoak eta buruko gaixotasunak dituzten guztiei; gainera, gaur egun Katalunian gehien

saltzen den markako jogurta egiten dute.

Liburuaren egileen esanetan, Fageda "bihotza duen kooperatiba errentagarria" da. Liburuan, esperientzia horren ezaugarri azpimarragarrienak azaltzen dituzte: bilakaera historikoa, gainditu beharreko erronkak, aurrera begirakoak... Betiere, Mondragoneko kooperatibismoaren begiradatik interesgarriak izan daitezkeen alderdietan erreparatuta.

Bi hizkuntzatan kaleratu dute liburua, euskaraz eta gazteleraz. Unibertsitatearen webguneandaude eskuragarri.

Izaera kooperatiboa jasoz

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak Arrasateko esperientzia kooperatiboari buruzko hainbat dokumentu argitaratu ditu. Oro har, hiru ikuspuntu uztartzen ditu ikerketa taldeak: lehena, esperientziaren fundatzaileek nola ulertzen eta praktikatzen zuten kooperatibismoa; bigarrena, gaur egungo erronka eta desafioen inguruko hausnarketa; hirugarrena, etorkizuneko kooperatibismoa irudikatzea.

Adimen artifizialeko ikasleak prestatzeko hitzarmena Sherpa.AI-rekin

SINATUTAKO AKORDIOARI ESKER, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO BUSINESS DATA ANALYTICS (BDATA) GRADUKO IKASLEEK SHERPAREN ADIMEN ARTIFIZIALEKO PLATAFORMAREKIN ETA TEKNOLOGIAREKIN LAN EGIN AHAL IZANGO DUTE

Enpresagintza Fakultatea | Prestakuntza programa honen bidez, ikasleek Sherpa.ai-k 2020ko uztailean aurkeztutako AI plataforma bertatik bertara eza-gutzeko aukera izango dute. Plataforma horrek hiru zerbitzu-arlo hartzen ditu: datuen pribatutasunari aplikatutakoa, gomendioari eta aurreikuspenari buruzkoa, eta elkarrizketari buruzkoa. Garapenak hainbat enpresa eta gizarte-

esparrutan erabil daitezke, hala nola osasunean, energian, ikerketan edo segurtasunean.

Adimen artifiziala ikasleei hurbiltzea

Hain zuzen ere, Business Data Analytics graduko ikasleak izango dira ekimen honetan parte hartuko dutenak. Duela bi urte jarri zen mar-txan gradu hau, eta dagoeneko 80 ikasle inguru ditu matrikulatuta.

Programak Sherpa.AI-ko lantaldearen prestakuntza-ekintzak eta saio praktikoak uztartuko ditu. Saio horie-tan, ikasleek teknologia probatu ahal izango dute eta APIak eta SDKak era-biltzen trebatu ahal izango dira, bai eta aplikazioak modu erraz eta intuitiboan sortzen ere. Adimen Artifiziala ikasleei hurbiltzeko modu bat da, sektoreko enpresa lider baten eskutik.

Teknologia aurreratua

Sherpa.ai-ren teknologia aurreratuene-tako bat da nazioartean. 2020an, Google, IBM, Amazon eta Microsofte-kin batera munduko 10 konpainia garrantzitsuene-tako bat izendatu dute.

**Business Data
Analytics
graduko
ikasleak izango
dira ekimen
honetan parte
hartuko
dutenak.**



Business Data Analytics graduko ikasleak.

Menu solidarioa

BASQUE CULINARY CENTERREK CARITASEKIN BATERA GIPUZKOAN BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN FAMILIEI 1.000 MENU BANATZEKO EKIMEN BAT MARTXAN JARRI ZUEN. EKIMENAREN HELBURUA GASTRONOMIATIK GIZARTEAREN BEHARREI ERANTZUN BAT EMATEA IZAN ZEN.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakul-tatea | Hainbat pertsonen bizi duten egungo egoera zailari erantzuteko asmoz, Basque Culinary Centerrek ekimen sozial berri bat jarri zuen abian Gabonetan Caritasekin batera, Gipuzkoan gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden familiei 1.000 menu eskainiz. Ekimena Gastronomía eta Sukaldaritza Arteen Graduko ikasleen prestakuntza-programaren parte izan zen, eta modu honetan Gastronomía Zientzien Fakultateko ikasle eta irakasleek mila menu egin zituzten, lehenengo eta bigarren platera zein postrea barne zituela. Elaborazioak kutxetan entregatu zitzaizkien, delivery formatuan, proiektu honetan laguntzaile izan ziren Gipuzkoako Caritaseko ordezkariak, eta hauek

arduratu ziren familia onuradunak aukeratu eta elikagaiak banatzeaz.

Gabonetan gastronomiaz gozatzea

Menua, Gabon enfokearekin diseinatua, abenduaren 17tik aurrera hasi zen banatzen. Jaki guztiak pasteurizatuak eta hutsean ontziratuak banatu ziren, berotu eta kontsumitzeko prest, horrez gain alergenoei buruzko informazioa eta kontsumo lehenetsiaren data emanez.

Ekimen honen helburua gastronomía ardatz izanik egungo pandemiak eragindako behar sozialei erantzutea izan zen, beharrian gehien duten pertsona-taldeekin harreman solidarioak eraikitzeaz gain.



Mila menu eskeni ziren.

“Kirolariok jasotako babesak gizarteari itzultzeko modua bilatu behar dugu”

BESTE ZENBAIT KONTUEN ANTZERA, KORONABIRUSAK GOITIK BEHERA ALDATU ZUEN ARITZ EGEAREN 2020KO KIROL DENBORALDIA. LASTERKETAK AHAZTURIK, KIROLARI BESTE BEGIRADA BATETIK SO EGIN ZION, ETA ERRONKA SOLIDARIO BAT BURUTU ZUEN GAIXOTASUN ARRAROEN IKERKETAREN ALDE.



Argazkia: Aritz Gordo

Aritz Egea egun bakarrean zazpi aldiz igo zen Izazpira gaixotasun arraroen ikerketaren alde.

Mondragon Unibertsitatea |

Aritz Egea, Makina eta Automatika saileko irakaslea eta mendi lasterkaria.

Nola sortu zitzaizun Eguzkiak Iraun Bitartean erronka burutzeko ideia? Badira urteak haurren minbizi arraroetan lanean diharduen SuperH elkartearekin elkarlanean nabilela, eta beti izan dut beraiekin zerbait egiteko asmoa, baina agendak zail uzten zuen. Horrez gain, Asier de la Iglesia txikitatik ezagutzen dut, eta esklerosi anizkoitza izan arren transmititzen duen bizipoza eta kirolarekiko grina goraiatzekoa iruditzen zaizkit. Berak BailaconEM erakunde sortu zuen gaixotasun honi aurre egiteko, eta gaur egun ere bera da honen gidari. Koronabirusaren gaitza dela eta atzeman nuen

mota hauetako elkarteek garrantzia galdu zutela, eta merezi dutela gure atentzioa. Hau izan zen pizgarria.

Eta aurrera eramateko Izazpi aukeratu. Hala da bai. Ni urretxuarra izanik, hasiera baten Urretxutik Irimora egiteko asmoa zegoen, besteak beste jende gehiago hurbildu ahal izango zelako. Ez genituen beharrezko baimenak eskuratu eta orduan Ezkiora jotzea erabaki genuen. Ni Ezkion bizi naiz gaur egun eta Izazpira astean 3-4 aldiz erraz igoko naiz, eta erronka hala planteatu genuen, etxeko ataritik irtenda, gertukoak inguruan zeudela. Eta egia esan oso gustura geratu nintzen, kausa solidario bat jomuga izanik astean 3-4 aldiz igotzen dudana mendia egun bakar batean 7 aldiz igota.

Konpromisoari erreparatuz, nolabaiteko sona duzuen kirolariek horrelako ekimenak bultzatzea ardura bat dela uste al duzu? Nik hala pentsatzen dut. Ni ez naiz profesionala, elite mailakoa baizik, baina Euskal Herrian bereziki mendian dabilen jendeak ezagutzen nau. Harrigarria iruditzen zait Zegama-Aizkorri baten adibidez gu ikustera zenbat jende etorri daitekeen, edo entrenatzen ari naizela norbait gurutzatzean animoak jasotzea, eta babes horrek gizartearekiko zorra pizten dit. Zor hau modu ezberdinetan itzuli dezakegu jendartera, eta mota hauetako erronkak egitea bada modu bat. Zentzu honetan, erronka konkretu honetan konpromiso hori agerian geratu da, euskal kirol taldeek parte hartu dute, Kilian Jornet bezalako pertsonaia ospetsu batek bultzada eman...

Guztira 22.500€ inguru bildu genituen, eta elkarte bakoitzak erdi bana eraman zuen. Jakin izan dudanez, SuperH-k Sant Joan de Déu Ospitaleko ikerketa alorrera bideratu zuen bere erdia, eta BailaconEM-ek Espainiako Esklerosi Anizkoitzaren Erakundeari.

Ezohiko urte honetan, erronkak izan al dira entrenatzeko motibazio nagusia? Nik entrenatzeko ez dut arazorik aurkitzen. Kirola egitea baino gehiago ez zait ezer gustatzen, eta 2020an ziurrenik inoiz baino kirol gehiago egin nuen. Ez nuen gorputza zaintzeko beharrik lasterketetan fresko izateko, beraz lasai asko jipoitu dut.

Ze balorazio egiten duzu erronkaz? Oso ona. Guztira 22.500 euro inguru bildu genituen, eta elkarte bakoitzak erdi bana eraman zuen. Jakin izan dudanez, SuperH-ek Sant Joan de Déu Ospitaleko ikerketa alorrera bideratu zuen bere erdia, eta BailaconEM-ek Espainiako Esklerosi Anizkoitzaren Erakundeari.

Bukatzeko, 2021era begira ze aurreikuspen? Beste erronkaren bat agian? Hasteko, hemendik ekainera lasterketa gutxi daude programaturik, eta hortik aurrerakoak batek jakin. Nik uste lasterketaren bat egiteko aukera izango dudala, eta horrela ez bada seguru beste zerbait okurrizten zaidala. Hainbeste kirol egiteak pentsatzeko denbora asko ematen du, eta makina elektrikotara baino, denbora hau horrelako burutzaziotara bideratzea gustukoago dut.

Neurri berriak berdintasunerantz

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK IV. BERDINTASUN PLANA JARRI DU ABIAN, ERAKUNDEAK GIZARTEAREKIKO DUEN KONPROMISOAREN BARRUAN.

Enpresagintza Fakultatea |

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak berdintasunarekin konpromiso argia duen erakundea izaten jarraitzen du eta horretarako IV. Berdintasun Plana jarri du martxan. Berdintasunaren aldeko erakunde bultzatzailea izatea bere egunerokotasunean islatzen da, eta bere jarduera guztietara hedatzen da, bai prestakuntza programetan zein ikerketaren esparruan.

Hori islatu da Fakultateko errealtatearen azterketa kuantitatibo eta kualitatibo baten bidez egindako berdintasun diagnostikoan. Kooperatibaren plantillari, arduradun- ei eta gobernu organoei buruzko datu orokorrak aztertu dira, bai eta kontratazioarekin, atxikipenarekin, garapen profesionalarekin eta gizarte kontsolidazioarekin zerikusia duten gaiak ere. Halaber, lan eta familia- bizitzaren integrazioa aztertu da, eta, azkenik, genero/sexu ikuspegia ikerketan eta hura prestakuntza- programetan integratzea.

Ekintza-arloak

Diagnostiko horren amaieran, berdintasunari buruzko hausnarketa eta ekintza-plana egin dira, lau lan- arlo estrategikotan islatutakoak:

- Berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza.
- Pertsonak kudeatzeko prozesuetako ekintzak.
- Bizitza pertsonala, profesionala eta familia uztartzearekin eta ongizatearekin lotutako ekintzak.
- Ikerketan eta prestakuntza programetan genero ikuspegia txertatzerabideratutako ekintzak.

Plan hori aktibatu zenetik, Enpresagintza Fakultateakurratsargiak ematen jarraitzen du, berdintasunaren aldeko erakunde bultzatzaile gisa, eta gizarte eta enpresa parekideen alde lanean jarraitzeko bokazioa berresten duena.

Gainera, languztiaikasleekin batera egiten da, haien egunerokotasunari aplikagarria izango den plan bat garatu ahal izateko.



Enpresagintza Fakultateko ikasleak.

Pilar Sagasta irakasle, ikertzaile eta lankide ohiaren omenezko liburua

BERTATAKO ZEIN KANPOKO IKERTZAILEEN ARTIKULUAK BILDUTA, 'TEACHERS' PERSPECTIVES, PRACTICES AND CHALLENGES IN MULTILINGUAL EDUCATION: STUDIES IN HONOR OF PILAR SAGASTA' LIBURUA ARGITARATU DU HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK



Pilar Sagasta, eskubitik hasita, lehena.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |

Liburu arkezpen ekitaldi berezia izan zen Humanitate eta Hezkuntzen Fakultateko Eskoriatzako campusean, bertako ikertzaile eta lankide ohi baten omenez egindako *Teachers' Perspectives, Practices and Challenges in Multilingual Education: Studies in Honor of Pilar Sagasta* liburuaren aurkezpena alegia. Fakultateko irakasle ohi eta eleaniztasunean aditua den Pilar Sagastaz gain, liburuan esku hartu duten zenbait ikertzailek parte hartu zuten ekitaldian.

Helburuak

Liburuak helburu bikoitza du. Batetik, Pilar Sagastaren ibilbide akademikoan jorratutako gaien gaineko azken ekarpenak idazlan bakar batean biltzea bilatzen du, eta, bestetik, arrasatearrak izan duen lanbide luzean ezagututako eta elkarrekin lan egindako ikertzailei tokia eskaintzea, eleaniztasunaren eta hezkuntzaren bueltan proposamen akademikoak egiteko.

Artikuluaren bilduma

Bedederatzi artikulu bilduta, *Teachers' Perspectives, Practices and Challenges in Multilingual Education: Studies in Honor of Pilar Sagasta* liburuak hezkuntza testuinguru eleaniztunetan kontuan hartu beharreko gako nagusiak jorratzen ditu, hala nola irakasleen rola eta profesionalen hautemateak. Liburuan idatzi duten ikertzaileei dagokionez, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko adituez gain, Britainia Handiko, Alemaniako, Kataluniako eta Euskal Herriko beste unibertsitateetako punta-puntako ikertzaileak ere aurkitzen dira egileen artean.

Streaming bidez eskainitako ekitaldian, unibertsitate desberdinetako ordezkariak gorai patu zuten Pilar Sagasta ikertzailearen izaera eta ibilbide profesionala. Omenduak berak, lehen une batean hartutako sorpresa gaituz, esker oneko hitzak izan zituen proiektuan parte duten lankide guztientzat.

Kirola eta jarduera fisikoa pandemia garaian

KIROLA MODU EGOKIAN EGITEA GARRANTZITSUA DA, ETA EGOERA ETA MUGA BERRIEI EGOKITZEN JAKITZEA EZINBESTEKOA DA ALBO KALTEAK EKIDITZEKO.



Kirol zerbitzuak baliabide berri ugari jarri ditu kirola modu egokian egiteko.

Kirola | Martxoaren 14a izan zen guztiok etxean sartu eta amets gaizto hau hasi zen eguna. Jada ia urtebete pasa da eta, gure bizimoduak jasan duen eta jasaten ari den ondorioak nabarmenak dira. Pandemiak gure ohituretan eragin zuzena izan du, batez ere sozializazio kontuetan; jendearekin harremanak egin, lagunekin elkartu, jarduera fisikoa egin...

Tokatzen denera egokitzea

Asko izan dira murrizketa eta debekuak; jarduera fisikoaren arloan zentratzen bagara, nabarmenak izan dira jasan ditugun murrizketak, kirol ekintza eta irteera desberdinen geldionetik hasita, gimnasio eta osasun etxe askoren itxieran amaituta.

Baina ez da ba esaten jarduera fisikoa osasuntsua eta beharrezkoa dela pertsonen garapenerako? Eta ariketa fisikoak pertsonen sistema immunologikoa hobetzen duela? Orduan zergatik murrizketa hauek?

Kirol zerbitzuan argi daukagu: kirola beharrezkoa da, baina neurrian. Kirol guneetara edo mendira hurbiltzen bagara, agerikoa da pandemiak eragindako egoera dela eta, jende asko animatu dela beraien kabuz jarduera fisikoa egitera. Hau oso positiboa da, baina aldi berean esan behar da, baduela arrisku bat: jendeak, ezjakintasunaren ondorioz, gehiegizko entrenamenduak egiten ditu, beraiei egokitzen ez zaizkien edo aurre prestakuntza behar dutenak. Beraz, kirola bai, baina zentzuz.

Horregatik, unibertsitateko kirolean eguneko egoera aldakorrari erreparatu eta dekretu berrietan oinarrituta, protokoloak uneoro moldatzen ditugu. Horrela, gure ikasleak egokitzeko egoera seguru, osasuntsu eta modu egokian egitea bermatzen dugu.

Bestalde, gure ikasleei bizimodu aktibo eta osasuntsu bat eskaintzeko, egungo egoerara egokitu ditugu jarduera eta ikastaroak, talde txikietan eskaintzeaz aparte, online formatuan jarduera guztietan parte hartzeko aukera emanez. Honekin batera, ekimen birtualak eskaini ditugu, norbere kabuz kirola egiteko aholku eta bideoak sortu ditugu eta nola ez, aholkularitza zerbitzua indartu dugu Mondragon Unibertsitateko parte den edonori entrenamendu pertsonal eta indibidualizatuak eskainiz.

Beraz, Mondragon Unibertsitateko kirol zerbitzuak martxan jarraitzen du. Lanean jarraituko dugu egungo egoerara egokitzeko, kirola bultzatu eta ikasle zein langileei kalitatezko bizimodu osasuntsu eta aktiboa eskaintzeko.

Modaren sektorea argizatuz

LEINN GRADUKO HIRU EKINTZAILEK KALEAK ARGITZEN DOKUMENTALA EKOIZTU DUTE. IKUS-ENTZUNEZKOAREN HELBURUA GARAI ZAIL HAUETAN GIPIZKOAKO MODAREN SEKTOREA LAGUNTZEA DA.



Filmazio taldea grabazio saio bat prestatzen.

Enpresagintza Fakultatea | Gipuzkoako modaren sektoreak kolpe handia jaso izan du COVID-19ren pandemiaren ondorioz, eta horri erantzuteko, LEINN graduko hiru ekintzailek Kaleak argitzen dokumentala ekoiztu dute. Mireia Arietaleanizbeaskoak, Ione Oyanguren eta Ander Gonzalezek sortutako pieza abenduaren 23an estreinatu zen Donostiako Aquariumean. Dokumentalak modak Gipuzkoako historian izan duen garrantziaren errepaso egiten du, eta Getariako Balentziaga Museoa, Errenteriako Jantziaren Zentroa, Bergarako Artxiboan edo marka anitzeko beste denda batzuetan filmatu da. Ikus-entzunezkoaren helburua Gipuzkoako modaren sektoreko profesionalen laguntzea da, tokiko saltoki eta bertako marken produktuak erostearen onurei balioa emanez.

Lurraldean eragin

Dokumentala Mireiak, Ionek eta Anderrek 2018an sortutako Duiik elkarteak sortu zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Danobatgroupek eta Ibai-Artek babestu dute.

Dokumentala 2021ean zehar Bergaran, Arrasaten, Errenterian edo oraindik zehaztu gabe dauden beste hainbat tokitan proiektatuko da.

Arizmendiarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak.
Gogoeta liburuxka.

EUS

“Heldutasunaren ezaugarria da eginkizun kolektiboan parte hartzea eta integratzea” (Gogoetak 289)

Ate irekiak

Izena emateko:

<https://www.mondragon.edu/es/grados-universitarios/puertas-abiertas>

Unibertsitate masterrak

Informazio saioen datak hauek dira:

- Martxoak 24
- Ekainak 9

Izena emateko:

<https://www.mondragon.edu/es/masteres-universitarios/sesiones-informativas-ferias>

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA KURTSOAK

Cursos presenciales

- ▶ PDU ONLINE: CLAVES PARA EL DESARROLLO DE UN WORK BREAKDOWN STRUCTURE (WBS)/ 15 Febrero
- ▶ AVANZADO EN GESTIÓN DE MANTENIMIENTO (XIX EDICIÓN)/ 3 Marzo
- ▶ INYECCIÓN DE PLÁSTICOS 9 Marzo
- ▶ ANÁLISIS, VISUALIZACIÓN DE DATOS Y CONSTRUCCIÓN DE MODELOS CON R 22 Marzo
- ▶ MÁSTER EN DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN (XXIX EDICIÓN)/ 23 Marzo
- ▶ DISEÑO Y DIMENSIONAMIENTO DE UNIONES ATORNILLADAS /29 Marzo
- ▶ CLAVES PARA LA MEJORA DE LA IMPLICACIÓN Y RENDIMIENTO ORGANIZATIVO /13 Abril
- ▶ EMPRESA ÁGIL: CONOCE A TU CLIENTE, DISEÑA TU IDEA DE NEGOCIO Y LÁNZALA CON EL ESFUERZO Y LA INVERSIÓN JUSTAS/ 14 Abril
- ▶ EXPERTO EN PROGRAMAS DE MEJORA CONTINUA LEAN-SIX SIGMA. NIVEL BLACK BELT/16 Abril
- ▶ CALIDAD EN EL PROCESO DE FABRICACIÓN /20 Abril
- ▶ MÁSTER PROFESIONAL EN MOVILIDAD ELÉCTRICA Y ALMACENAMIENTO DE ENERGÍA/3 Mayo

▶ METALOGRAFÍA Y ENSAYOS MECÁNICOS DE MATERIALES METÁLICOS (2 MÓDULOS) /4 Mayo

▶ EXPERTO EN DIRECCIÓN DE COMPRAS/ 2 Julio

▶ RESOLUCIÓN SISTEMÁTICA DE PROBLEMAS A TRAVÉS DE HERRAMIENTAS DE CALIDAD /5 Julio

▶ INTRODUCCIÓN Y BUENAS PRÁCTICAS EN LA DINÁMICA DE FLUIDOS COMPUTACIONAL (CFD)/5 Julio

▶ GESTIÓN ESTRATÉGICA DE PERSONAS BASADA EN DATOS Y EVIDENCIAS. / 6 Julio

▶ EL PENSAMIENTO SISTÉMICO: UNA APROXIMACIÓN PRÁCTICA. / 13 Julio

Cursos on line

▶ DESIGNACIÓN DE ACEROS/ 1 Marzo

▶ ACEROS INOXIDABLES 8 Marzo

▶ SOLUCIONES PARA AMBIENTES CORROSIVOS: ACEROS INOXIDABLES Y TRATAMIENTOS ANTICORROSIÓN / 8 Marzo

▶ CALIDAD EN EL PROCESO DE FABRICACIÓN /8 Marzo

▶ LEAN MANUFACTURING /8 Marzo

▶ AGILE PROJECT MANAGEMENT / 15 Marzo

▶ MATERIALES METÁLICOS PARA PERSONAL DE COMPRAS Y COMERCIALES/24 Marzo

▶ LOGÍSTICA INTEGRAL / 12 Abril

▶ BUSINESS INTELLIGENCE: APRENDE A CREAR UN CUADRO DE MANDO CON POWER BI A TU RITMO/ 19 Abril

▶ ADVANCED PROJECT MANAGEMENT/ 10 Mayo

Cursos gratuitos suvencionados

▶ PROGRAMACIÓN ROBOT INDUSTRIAL ABB INICIACIÓN /1 Marzo

▶ PROCESOS ABRASIVOS (TECNOLOGÍA DE RECTIFICADO) 2 Marzo

▶ VISIÓN ARTIFICIAL EN LA ROBÓTICA INDUSTRIAL/ 2 Marzo

▶ CAD-CAM / 15 Marzo

▶ CIBERSEGURIDAD. CONCIENCIACIÓN Y PREVENCIÓN PARA TODOS LOS PÚBLICOS / 22 Marzo

▶ CAD 3D MODELADO Y PLANOS / 13 Abril

▶ DIMENSIONAMIENTO DE COMPONENTES ESTRUCTURALES MEDIANTE SIMULACIÓN/ 26 Abril

▶ ELECTRICIDAD BÁSICA/3 Mayo

▶ SELECCIÓN HERRAMIENTAS Y CONDICIONES DE CORTE TORNO/ 3 Mayo

▶ DISEÑO, ESCANEADO E IMPRESIÓN 3D/ 3 Mayo

▶ WORDPRESS: CREACIÓN DE PÁGINAS WEB / 15 Abril

▶ DISEÑO INCLUSIVO: EVALUACIÓN DEL NIVEL DE EXCLUSIÓN EN EL USO DE PRODUCTOS Y SERVICIOS / 20 Abril

▶ OPTIMIZACIÓN DEL TIEMPO DE DESARROLLO DE TUS DISEÑOS EN SOLIDWORKS / 20 Abril

▶ DIMENSIONAMIENTO DE COMPONENTES ESTRUCTURALES MEDIANTE SIMULACIÓN / 26 Abril

▶ VEHÍCULO ELÉCTRICO / 26 Abril

▶ ELECTRICIDAD BÁSICA/3 Mayo

▶ TERMOGRAFÍA / 10 Mayo

▶ PRODUCCIÓN AJUSTADA (LEAN MANUFACTURING) / 10 Mayo

▶ SELECCIÓN HERRAMIENTAS Y CONDICIONES DE CORTE FRESADO/ 3 Mayo

▶ DISEÑO, ESCANEADO E IMPRESIÓN 3D/ 3 Mayo

▶ TERMOGRAFÍA / 10 Mayo

▶ PRODUCCIÓN AJUSTADA (LEAN MANUFACTURING) / 10 Mayo

▶ SELECCIÓN HERRAMIENTAS Y CONDICIONES DE CORTE FRESADO/ 17 Mayo

▶ FUNDAMENTOS PARA EL DISEÑO Y DESARROLLO DE NUEVOS SERVICIOS/ 26 Mayo

▶ FUNDAMENTOS PARA EL ANÁLISIS DE TENSIONES RESIDUALES 1 Junio

▶ METROLOGÍA: TOLERANCIAS DIMENSIONALES, SUPERFICIALES Y GEOMÉTRICAS / 7 Junio

▶ VEHÍCULO ELÉCTRICO / 28 Junio

▶ PROGRAMACIÓN PLC SIEMENS CON TIA PORTAL/ 12 Julio

ENPRESAGINTZA

Profesionalei zuzendutako kurtsoak

- ▶ CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN GESTIÓN DE EMPRESAS COOPERATIVAS/ 1 Marzo
- ▶ CURSO EXPERTO EN CAPITAL RIESGO & STARTUPS/ 16 Abril
- ▶ EXPERTO EN MARKETING DATA ANALYTICS/ 16 Abril
- ▶ CURSO EXPERTO EN COACHING DE SISTEMAS RELACIONALES Y EQUIPOS/ 22 Abril

BIZUMekin

ordaintzen baduzu,
FLOWa duzu

Lagunen arteko opari bat, taxi bat, sarrera batzuk...

LK Payrekin dirua bidali eta jaso dezakezu doan, mugikorretik mugikorrera, zure kontaktuen artean. Erraz, azkar eta seguru. Hau da, FLOW handiarekin.

Deskargatu LK Pay appa, Bizum aktibatzeko:



LK Pay



bizum




LABORAL
kutxa